

## **BERMEO / Narrazioak, poesiak eta larrosak opari**

### **Liburu Eguna dela-eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte liburutegikoek**

Ekaitz Goienetxea

Irakurtzea edota literatura gustuko dutenek gozatzeko aukera berezia dute egunotan. Eta zaletasun handiegirik ez dutenez ere motibatzenko arrazoirik ez zaie faltako. Izan ere, Nazioarteko Liburu Eguna aprobetxatuz, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Bermeoko Udal liburutegikoek, gaur hasi eta martitzenera bitartean.

Hasteko, gaztetxoei zuzendutako ekimen baten tarte izango da gaur, Bermeoko Uria Narrazio Lehiaketan parte hartu duten gazteei sariak emango dizkietelako, Nestor Basterretxea aretoan.

Laugarren urtea da, dagoeneko, ikastetxeetako ikasleentzako narrazio lehiaketa antolatzen dutena. Belaunaldi berriak irakurketara eta sormena lantzerantz bultzatzeko asmoz antolatu zuten ekimen hori, eta gainera, hori dena euskaraz egitera bultzatzeko modu bat ere bada.

Baina, nagusienak ere ez dira sari barik geratuko, astelehenean liburutegikoek irakurleei opariak emango baitizkiete. Egun horretan da Nazioarteko Liburu Eguna, eta liburutegira hurreratzen direnei, liburu bat eta lore bat oparituko dizkiete. Hori bai, baldintza bat baino ez dute bete beharko: libururen bat hartzea maileguan.

Badira gutxienez sei urte Liburu bat, larrosa bat ekimen berezia egiten dutena, liburutegiaz gozatzeko eta guztiei zabalik dagoela erakusteko, Marije Bidaguren liburutegiko arduradunak esan zuen bezala.

Poesiak bere tarte izango du martitzenean. Lau andra izango dira liburutegian poemak irakurtzen: Luci Sepulveda, Margarita Erro, Carmen Martinez eta Isabel Garcia. Lehenengoak, Itsas Ertzean izenburupean irakurriko dituzte poemak, eta beste hirurek Rapsodak irakurriko dituzte.

### **Liburu argitalpena**

Bestalde, iazko narrazio lehiaketako irabazleen ipuinak liburu baten argitaratuko dituzte. Hirugarren liburua dute dagoeneko, beste horrenbeste lehiaketetako ipuin sarituekin argitaratuak, eta 1.300 ale kaleratuko dituzte. Batetik, narrazio lehiaketako parte-hartzaile guztien artean banatuko dituzte liburuak, eta bestetik, Euskal Herriko liburutegietan eta ikastetxeetan ere banatuko dituzte. Beraz, Bermeoko gazte idazleek sortutako testuak herritik kanpora ere irakurtzeko aukera izango dute.